



HEZKUNTZA SAILA
Lanbide Heziketako Sailburuordetza
Teknologiaren eta Ikaskuntza Aurreratuen
Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN
Viceconsejería de Formación Profesional
Dirección de Tecnología y Aprendizajes
Avanzados

HEZKUNTZA SAILA

Ebazpena, 2022ko irailaren 12koa, Lanbide Heziketako sailburuordearena, erakundeei biritza osoan zeharreko ikaskuntzarako jarduerak egiteko diru-laguntzak emateko erabakia hartzen duen 2022eko abuztuaren 17ko Ebazpena aldatzen duena.

2022eko abuztuaren 17an, Lanbide Heziketako sailburuordearen Ebazpenaren bidez erakundeei biritza osoan zeharreko ikaskuntzarako jarduerak egiteko 2022ko ekitaldirako diru-laguntzak emateko erabakia hartu zen.

Aipatutako ebazpenean zuzendu beharreko huts bat atzeman da eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 109.2 artikulua dioenari jarraiki, "Herri-administrazioek, beren kabuz edo interesdunek eskaturik, edozein unetan zuzendu ditzakete beren egintzetako errakuntza materialak, egitezkoak edo aritmetikoak".

Horiek horrela, eman zaizkidan eskumenez baliaturik,

EBATZI DUT:

2022ko abuztuaren 17ko Ebazpenaren V. eranskina zuzentzea, ondoren ezarritakoaren arabera:

Honako hau esaten denean:

V. ERANSKINA IKASKUNTZAKO BITARTEKARITZA-ZERBITZUAK

Baztertze arrazoia:

- Laguntza horietako dagoen aurrekontu kreditua agortuta egoteagatik, uztailaren 23ko 118/2019 Dekretuaren 13. artikulua dioenari jarraiki.
- Uztailaren 23ko 118/2019 Dekretuaren 4.2.b) artikulua.
- Proiektua ez da ikaskuntzako bitartekotzari buruzkoa, 118/2019 Dekretuaren 4.2.b eta 5. artikuluetan jasotakoaren arabera.

ESKATZAILEA	ZONALDEA	PROIEKTUAREN IZENA	ARRAZOIA
GIPUZKOA			
Cebanc SA	Donostialdea	Servicio de mediación de aprendizaje	2

Honako hau esan behar da:

V. ERANSKINA IKASKUNTZAKO BITARTEKARITZA-ZERBITZUAK

Baztertze arrazoia:

- Laguntza horietako dagoen aurrekontu kreditua agortuta egoteagatik, uztailaren 23ko 118/2019 Dekretuaren 13. artikulua dioenari jarraiki.
- Uztailaren 23ko 118/2019 Dekretuaren 4.2.b) artikulua.
- Proiektua ez da ikaskuntzako bitartekotzari buruzkoa, 118/2019 Dekretuaren 4.2.b eta 5. artikuluetan jasotakoaren arabera.





HEZKUNTZA SAILA
Lanbide Heziketako Sailburuordetza
Teknologiaren eta Ikaskuntza Aurreratu
Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN
Viceconsejería de Formación Profesional
Dirección de Tecnología y Aprendizajes
Avanzados

ESKATZAILEA	ZONALDEA	PROIEKTUAREN IZENA	ARRAZOIA
GIPUZKOA			
Cebanc SA	Donostialdea	Servicio de mediación de aprendizaje	2
Asociación gitana Kale Dor Kayiko	Irún	Servicio de Mediación con Población Gitana del municipio de Irún	3

AZKEN XEDAPENA

Ebazpen honen aurka gorako errekurtoa jarri ahal izango da Hezkuntza sailburuaren aurrean, hilabeteko epean, ebazpena egoitza elektronikoaren iragarki-taulan argitaratzen den hurrengo egunetik hasita.

Lanbide Heziketako sailburuordea

Jorge Arévalo Turrillas